


# azpeitianzer?

udal aldizkaria 149. zenbakia  
2012ko uztaila



## Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria egin du Udalak

Udal administrazioan dagoen elementu estrategiko sakonena da



*Etxebizitza tasatuak alokairuan eskaintzen dira*



*Bisitariak erakarri eta herria ezagutzeko ekimenak*

## ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Etxebizitzak
- 6 EHU
- 7 Software
- 8 Auzo alkateak
- 9 Alde zaharra
- 10 Plan orokorra
- 14 Eraikitzen
- 16 Motxak
- 18 Turismoa

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91



## telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

## botikatxandak



**ALBERDI.** Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74  
Abuztuaren 1, 3, 4, 5, 7, 8, 11, 12 eta 14.

**ARANBURU.** Plaza Nagusia - Goiko kalea 2  
Tel.: 943 81 13 50  
Ez du txandak.


**BERISTAIN.** Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49  
Ez du txandak.

**EIZAGIRRE.** Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74  
Abuztuaren 2, 6, 9, 10, 13, 15, 18, 19, 20, 22, 24,  
27 eta 30.

**JACOME.** Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58  
Abuztuaren 16, 17, 21, 23, 25, 26, 28, 29 eta 31.

## Udal zerbitzuak

### Turismo bulegoa



Esualdera etortzen diren bisitariari eskaintza zabala eskaini eta kanpotarrek dituzten nahiak asetzeko, Iraurgi Lantzenek turismo bulegoa kudeatzen du. Turismo bulegoa Loiolako Santutegiaren alde batean kokatzen da eta Azpeitiko, Azkoitiko zein eskualde guztiko eskaintza turistikoa berri ematen du.



Telefonoa: 943 15 18 78  
i-loiola@urolaturismo.net  
www.urolaturismo.net

Bulegoaren ordutegia honako hau da:

- Asteartetik - Larunbatera:  
10:30 - 13:30 , 15:30 - 18:30
- Igandeak: 10:00 - 14:00
- Astelehenak itxita.

## Udal erabakiak

Uztailaren 5ean egindako Udalbatza osoak, Hamaikabat alderdiko Aitor Aranguren ez zuen parte hartu, ondorengo erabakiak hartu zituen:

- 1.- Udalbatzak 2012ko ekainaren 5ean egindako bileraren akta aho batez onartu zen.
- 2.- Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorrari hasierako onarpena aho batez eman zitzaion.
- 3.- Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorraren baitan Iturzulo-Esklabakazpi-eremua garatzeko helburua duen Hirigintza Hitzarmenari hasierako onarpena aho batez eman zitzaion.
- 4.- Udal Etxebizitza tasatuak esleitzeko prozedurari hasiera ematea erabaki zuten aho batez: oinarrien onarpena eta deialdiaren hasiera.
- 5.- 2012ko aurrekontuan 2. kreditu aldaketa onartzea. hasierako onarpena eman zen Bilduren aldeko botoekin, eta EAJren aurkakoeekin.
- 6.- 2011ko Azpeitiko Udaleko (bere erakunde autonomiadunak eta Azpeitia Lantzen SA) KONTU OROKORRA onartu zen Bilduren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen.
- 7.- Corrugados AEra doan adarrean Abadiano-Azpeitia I eta 2ko izeneko 132 kV-ko linea elektrikoa aldatzeko proiektuan Ingurumen Inpaktuaren Azterlana aho batez onartu zen.
- 8.- Azpeitiko Udalak 2008-2011rako Euskararen Plan Nagusiaren luzapena 2012. urterako egitea aho batez onartu zen.
- 9.- Tokian tokiko jaieguna 2013. ekitaldirako, urtarrilak 21 jaiegun izatea. Bilduko eta EAJ-ko 4 zinegotzik alde bozkatu zuten, EAJ-ko zinegotzia bat abstenitu egin zen.
- 10.- LGTBQ kolektiboaren Nazioarteko Egunaren baitan askatasun sexualaren aldeko deklarazioa aho batez onartu zen.
- 11.- Aritz Arzallus herritarrari babesa adierazteko mozioa Bilduren aldeko botoekin onartu zen. EAJ-ek kontra bozkatu zuen.



## Etxebizitzak tasatuak alokairuan hartzeko aukera eskaintzen du Udalak

Enparan kalean 2 bi etxebizitza dira, Nuarbe auzoan, berriz, 7 etxebizitza alokairuan eta Ibai-Eder 2 kalean etxebizitza bat salmentan

azpeitiko Udalak hainbat etxebizitza alokairuan eskaintzen ditu. Eskaintza hau Udal Gobernuak alokairu publikoaren aldeko politika indartzeko beste urratsa da. Horrela, 2011ko maiatzean Agirre auzoko 18 etxebizitza alokairuan eman ondoren, orain eskaintza berri honetakoak gehitu behar zaizkio.

Udal gobernuaren ustetan, alokairuari publikoak, egoera honetan, herritarrak dituzten beharrak asetzeko bide bat da.

**“Alokairuari publikoa, egoera honetan, herritarrak dituzten beharrak asetzeko bide bat da”**

Eta, horregatik, alokairu etxeen parke publikoa egitearen apustua egiten ari da.

Oraingo eskaintza, azken urteetan saldu gabe gelditu diren etxebizitzekin egiten da. Modu honetan, Enparan kaleko 47 zenbakian kokatzen diren 2 etxebizitza eta Nuarbe auzoan 7 etxebizitza alokairuan hartzeko aukera izango dute herritarrek. Bederatzi etxe hauek, erosteko aukerarekin ezartzen dira gainera.

Bestalde, Ibai Eder gune berrian etxebizitza bat salgai jarri da. Etxebizitza bakoitzaren xehetasunak eta herritarren betebeharrak ondoren zehazten dira:

### 1.- ENPARAN KALEA

- Bi etxebizitza alokairuan erosteko aukerarekin (bi logela eta trastelekua)
  - Diru-sarrerak: 12.000 eta 52.500 euro artekoak
  - Errentaren prezioa: 480 + BEZ
  - Alokairuaren epea: 5 urte
  - Errolda/erlazio laborala Azpeitian:
- Azken 5 urtetan 3 urte  
Azken 15 urtetan 5 urte  
10 urtetan lan egin izana



### 2.- NUARBE AUZOA

- Zazpi etxebizitza alokairuan (hiru logela trasteleku eta garajearekin)
  - Diru-sarrerak: 9.000 eta 30.000 euro artekoak
  - Errentaren prezioa: 350 euro
  - Alokairuaren epea: 5 urte
  - Errolda/erlazio laborala Azpeitian:
- Azken 5 urtetan 3 urte  
Azken 15 urtetan 5 urte  
10 urtetan lan egin izana



### 3.- IBAI EDER

- Etxebizitza bat salgai (hiru logela eta trastelekua)
  - Diru-sarrerak: 12.000 eta 52.500 euro artekoak
  - Prezioa: 210.000 euro
  - Errolda/erlazio laborala Azpeitian:
- Azken 5 urtetan 3 urte  
Azken 15 urtetan 5 urte  
10 urtetan lan egin izana



### IZEN-EMATEA

Interesatuak uztailaren 27a baino lehen eskakizuna eta gainontzeko dokumentazioa Azpeitia Lantzenek Sindikatu Zaharrean duen bulegoan aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:30era bitartean. Telefono zenbakia 943 15 71 83



Eneko Etxeberria alkatea Denon Artean prozesua agertzen Donostiako Miramar Jauregian.

## Euskal Herriko Unibertsitatea Azpeitian izan da lehenbizikoz

Burdinbidea garraio iraunkor bezala hausnartu eta eztabaidatzeko udako ikastaroa izan da

Euskal Herriko Unibertsitateak lehenbizikoz ikastaroa eskaini du uda honetan Azpeitiko herrian. Ekainaren azken hiru egunetan, "Burdinbidea, Iraunkortasuna eta Lurralde Antolakuntza: gaur eguneko egoera eta etorkizuneko ikuspegia testuinguru globalizatu batean" udako ikastaroa eskaini zen Loiolan eta arduradunek agertu dutenez, "jendetzak hartu zuen parte eta arrakasta handia" izan zuen eta "Kurtsoa Azpeitian egitea oso baikorra izan da, izan ere testuinguruak hausnarketarako eta eztabaidetarako aukera ematen zuen giro lasai batean".

Burdinbidearen Euskal Museoren Fundazioak antolatutako jardunaldiko hiru egunetan zehar, alor ezberdineko profesionalak (abokatuak, geografoak, politikariak, ekonomilariak...) beraien ikuspuntua emateko aukera izan zuten

testuinguru globalizatu eta iraunkor batean lurralde antolakuntza eta trenbidezko garraioen inguruan.

Lehenengo edizio honen arrakastak argi utzi du beharrezkoa dela burdinbidea garraio iraunkor bezala hausnartzeko eta eztabaidatzeko espazioak bultzatzea. "Hain handia izan da kurtso honek eragin duen interesa, bertan jasotako ponentzien eta eztabaiden argitalpena bultzatzeko asmoak ditugula" aurreratu zuen Fundazioaren zuzendariak, Maitane Ostolazak.

**"Lehenbiziko edizioak arrakasta handia izan duela nabarmendu dute"**

### Parte-hartze esperientzia

Bestalde, Azpeitiko Udalak Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroetan ere parte hartu du zuzenean. Izan ere, ikastaroetako bat, politika publikoak herritarrei parte-hartzeko eskaintzen dizkieten tresna eta baliabideen inguruan izan zen eta Azpeitiko Udala gonbidatua izan zen bere esperientzia azaltzeko.

Horrela, Eneko Etxeberria alkateak Azpeitiko herrian egindako Denon Artean parte-hartzaile prozesuaren berri eman zien ekainaren 25ean Donostiako Miramar Jauregian bildutakoiei. Azpeitiko esperientziak gain, Oñatiko eta Malagako beste proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten partaideek.

## Software librearen aldeko apustua egin du Azpeitiko Udalak



Udaleko langile talde bat software librearen ikastaroan.

Azpeitiko 9 eragilek jaso zuten Iraurgi Lantzen garapen agentziaren egiaztatzea

Azpeitiko Udalak software librearen aldeko apustu sendoa egin du. Honela, Udaleko ordenagailu guztietan LibreOffice ezarri da, Microsoft Office-n partez, eta gainera, langile guztiak erreminta berria ondo ezagutu eta erabiltzeko ikastaroa egin dute.

Modu honetan, 2012 urte amaierarako, LibreOffice bakarrik izango da Azpeitiko Udaleko ordenagailu guztietan.


**"Neurri honi esker, 40.000 euro aurreztuko du Udalak"**

"Pausoak ematen hasi gara. Gastu handia suposatzen zuen Microsoft Office mantentzea; 3-4 urtean 40.000 euro ordaintzen genituen. Neurri berri honekin kopuru hori aurrezteko lortzen dugu", agertu du Aritz Epelde zinegotziak.

Legealdi honetan beste bi pauso gehiago ematea aurreikusten dutela adierazi du Epelde: "Alde batetik, Udalak aurrerantzean erosi behar dituen ordenagailuek sistema eragile libre eta doako izango dute, horrela ordenagailu bakoitzeko 100 euro aurreztu ahal izango ditugu. Bestetik, berriz, sare informatikoa, hau da zerbitzaria, 4-5 urtetan aldatu egin behar izaten da, 5.000 euroko kostua duenak, eta hau ere libre izango da".

### Software librearen abantailak honako hauek dira:

- 1.- Software Libre, berdintasuna, parte-hartzea eta solidaritatea sustatzen ditu eta edozeinek erabili eta hobetu dezake. Hobekuntzak ez dira interes pribatuaren arabera gauzatzen baizik eta edozein enpresa edo erabiltzailearen beharren arabera. Teknologia honen hobekuntza edonoren esku dago, hau da, edozeinek erabili eta hobetu dezake eta onuradunak guztiok gara. Teknologia hau Libre da.
- 2.- Teknologia honek giza garapena, jakintzaren gizartea eta berrikuntza teknologikoa bultzatzen ditu, Teknologia Berrietara guztion sarrera erraztuz. Baita, ekonomikoki errentagarriagoa da (lizentziak doakoak dira) .
- 3.- Informatika munduan euskararen garapen eta presentzia indartzen ditu
  - Software enpresek, beste enpresek bezala, etekinak ateratzeko egiten dute lan.
  - Euskarazko erabiltzaile-multzoa txikia da eta gehienetan enpresei ez die merezi beraien programen euskarazko bertsio bat ateratzea.
  - Software pribatuak, enpresak berak (adibidez Microsoft) bakarrik euskaratu dezake, software hauetan euskara bigarren mailako hizkuntza da.
  - Software libreak nahieran moldatzeko askatasuna ematen du eta horregatik edonork (kaleko jendeak barne) euskaratu dezake.



Mikel Ibarzabal, Ainhoa Beristain eta Aritz Epelde zinegotziak prozesuaren aurkezpenean

## Auzo-alkateak hautatzeko prozedurak abian jarri ditu Udalak

Abiapuntu bezala, Aratz Erreka, Nuarbe, Urrestilla, Lasao eta Matxinbenta hartu dira

Herriarren partadeitzan oinarritu nahi du Udal Gobernuak bere kudeaketa. Herriarrek protagonista bilakatu eta kudeaketa gardenaren aldeko bidea egitea nahi da eta horregatik, hainbat urrats eman ditu dagoeneko: arloetako mahaien jarraipena, auzolana, aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzalea edota onartzearen parte-hartze ordenantza. Modu honetan, herrigunetik kanpo kokatzen diren auzoetan, auzo batzordeak eta auzo-alkateak eratze prozesuak abian jarri dira. Abiapuntu bezala, herriko bost auzotan izendatuko dira auzo-alkateak: Aratz Erreka, Nuarbe, Urrestilla, Lasao eta Matxinbenta. "Auzoen bizi-kalitatea eta izaera indartuz, auzoen biziberritzea ezinbestekoa da. Auzoen eta auzotarren parte-hartzea, antolatu eta auzoaren etorkizunean auzotarrek parte hartzea

ezinbestekoa da. Horretarako bitartekoak eta erraztasunak auzotarren eskura ipintzea dagokigu", adierazi du Ainhoa Beristain Auzo zinegotziak.

**Auzo-alkatearen eskumen nagusiak honakoak izango dira:**

- Auzotarrek bitartekaritza egitea
- Udalarari auzotarren eskariak aurkeztea
- Auzotarrei jakinarazi Udalak auzoan zabaldu nahi dituen jardueren gaineko informazioa

**"Ezinbestekoa da auzoen biziberritzea; bitartekoak jarriko ditu horretarako"**

"Esan beharra dago, auzotarrek begi onez ikusi dutela auzoko batzordea eratu eta auzo-alkatea aukeratzeko prozesua. Horrek posible egingo du antolaketa berri bat eratzea, eta auzotarrak zoriondu nahi ditugu auzoak hobetzeko erakusten ari diren jarrera erakitzaileagatik. Elkarlanerako zubiak eraiki eta Udalaren baliabideak auzotarren esku ipinita auzoarentzat eta herriarentzat emaitza hobetoak lortu daitezke. Beraz, bide horretan urratsak ematen jarraituz bide oparoa egingo dugulakoan gaude", amaitu du Beristainek.

## Alde zaharra bizi

Alde zaharra biziberritzeko prozesua martxan jarri du Udalak



Udaleko ordezkariak baseritarrek batera egindako bileran.

Parte berezia hartu du Alde Zaharren biziberritzeak Udalaren agendan. Alde Zaharra biziberritzeko Udalak bultzatuko duen prozesu parte-hartzailea abian da eta ekaina eta uztailan hainbat batzar egiten ari da Udala eragile desberdinekin. Saio hauen helburua, elkarlanerako zubiak eraiki eta abiapuntu berri bat ipintzea da. Eta bide batez, hainbat arlotatik egindako ekarpenekin osatutako argazki orokor bat eraikitzea.

Prozesuak fase desberdinak izango ditu. Lehen fase honetan, biziberritzean eragin dezaketen eragileen zerrenda osatu eta protagonistekin harremanak egiten ari da Udala. Bizilagunak, kultur mahaia, merkatariek, baserritarrak, tabernariak, gazte asanblada, Baigera edota emakumeen mahaiarekin batzarrak eginda itxi da lehen erronda. Dena den, biziberritzearen alde lan egin nahi duen eragile nahiz herritar orori

irekita garatuko den prozesua izango da Udalak bultzatuko duena.

Lehen erronda amaituta, Alde Zaharreko mahaia osatu nahi da. Udaleko ordezkariak, eragileetako ordezkariak edota herritar soilak parte hartu ahal izango dute bertan. Honela, Udala, herri eragile nahiz herritarren arteko elkarlanean emango dira Alde Zaharra biziberritzeko urratsak.

**"Biziberritzean eragin dezaketen eragileen zerrenda osatu da eta protagonistekin harremanak egiten ari da Udala"**

**Soreasuko aparkalekua**  
Modu honetan, lehenbiziko pausoak eman dira. Alde batetik, Soreasuko aparkalekua sarreran egokitzapenak egin dira furgonetak sar daitezkeen. Orain arte, 1,95eko altuera zuen sarrerak eta zenbait furgonete ezin zuten sartu. Orain ordea, 2,05era igo da altuera eta beraz, arazorik ez da egongo furgonetak bertan aparkatzeko.

Era berean, furgonetak sar daitezkeelarik, Soreasuko aparkalekua alokairuan edota salmentan eskuratu nahi duten herritarrek Azpeitiko Udalean dute informazio guztia.

Bestalde, Alde Zaharra biziberritzeko prozesuaren baitan, merkatariek eskaera luzatu diote Udalarari erosleak autoarekin Alde Zaharrera sartzeko erraztasunak izan ditzaten. Azpeitiko Udalak eskaerari erantzuna eman dio eta horregatik, aurrerantzean autoak 5 orduz dohain aparkatu ahal izango dute Soreasuko aparkalekuan.

# erreportajea

## Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aho batez onartu du Udalbatzak



### Udal Gobernuak erabaki estrategikotzat hartzen du, herri guztiari eragiten baitio

Uztailak 5ean egindako Udalbatzak aho batez onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari hasierako onarpena ematea eta jenduraren egongo da irailak 21 arte, herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Alegazioak aztertu, erantzun eta egon daitezkeen moldaketak egin ondoren, administrazio desberdinetara bidaliko da, beraz, behin-betiko onarpena urtebete barru inguru ematea espero dute.

**“Udal administrazioan dagoen elementu estrategiko sakonena da”**

Udal administrazioan dagoen elementu estrategiko sakonena dela nabarmendu du Udal Gobernuak, beraz, datozen zortzi-hamar urterako hirigintza plangintza onartzea benetan urrats

estrategiko garrantzitsua da. Herria nolakoa izango den definitzen bai du plan orokorrak.

“Prozesu luzea eta neketsua izan da, bilerak asko egin dira baina fruitua eman du, aho batez onartzea. Azpeitiko norabidea eta eman beharreko pausuak finkatuta geratu dira, beraz, beste garai eta aukera batzuek irekitzen dira gure herriarentzat”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

### PLANA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak kontutan hartu behar izan ditu azken urteotan Azpeitiko herriak izan dituen aldaketa sakonak. Horrela, dokumentu berria egiteko orduan, bi aldagai hartu behar izan dira kontutan; batetik, adreiluaren krisia eta batetik, Corrugados Azpeitia enpresaren egoera.

**“Kontutan hartu dira herriak azken urteotan izan dituen aldaketak”**

#### • Adreiluaren krisia.

Eguneko krisi ekonomikoa dela-eta, etxebizitza kopuru askoz txikiagoa aurreikusi da egitea eta etxe hauetan, gainera, gehienak babestuak eta tasatuak izatea erabaki da, “apustu sendoa egin nahi dugu zentzu honetan”, gaineratu du Etxeberria.

### 2011ko proposamena

Eremuak	Babestutako etxebizitza kopurua	Etxebizitza tasatuen kopurua	Etxebizitza libreten kopurua
Zezen plaza	11	11	32
Santutxo	5	5	15
San Migel	23	22	67
Esklabak-Iturzulo	62	61	157
Madalena-Soreasu	31	31	93
Amue	149	149	446
Txorietxe	35	29	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>317</b>	<b>308</b>	<b>810</b>

### 2012ko proposamena

Eremuak	Babestutako etxebizitza kopurua	Etxebizitza tasatuen kopurua	Etxebizitza libreten kopurua
Zezen plaza	11	11	32
Santutxo	5	5	15
San Migel	23	22	67
Esklabak-Iturzulo	67	60	163
Madalena-Soreasu	31	31	93
Amue	102	178	182
Txorietxe	36	29	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>275</b>	<b>336</b>	<b>552</b>

Horrela, 1.163 etxebizitza eraikitzea aurreikusten dute planean: 275 BOEak (babes ofizialekoak), 336 tasatuak eta 552 libreak.

#### • Corrugados Azpeitia.

Kontutan hartu behar izan den beste aldagai garrantzitsua Corrugados Azpeitia enpresaren egoera izan da. Enpresako labea Lasara, Trukutxoko eremura, eramatea aurreikusten zen, eta Azpeitian gelditzen zen lurra aprobetxatuz, herriko hazkundera bertatik egitea zen asmoa.

**“Herriko hazkundera Esklabak-Iturzulotik egitea erabaki da”**

“Azken urteetan ordea, egoera aldatu egin da eta duda sortu da labea lekuz aldatuko ote den. Zer esan nahi du horrek?, etxebizitza berriak beste eremuetan egin behar direla. Honela, Esklabak-Iturzulo aldera jotzea erabaki dugu”, azaldu du alkateak. Aldi berean, frantziskanatako eremua labea aldatu arte egoki ez dela garatuko deritzogu.



Esklabak-Iturzulo eremua

## HITZARMENA

Hiri Antolamendurako Plan Oroko berriak hitzarmen bat du Esklabak-Iturzulo eremuan etxebizitzak egin ahal izateko. Hitzarmen hau Leku Eder SL enpresarekin sinatu da eta akordioari esker, legez dagoen eraikitakoaren %15az gain, Udalak Esklabak eraikina eta 2,5 milioi euro jasoko ditu lur-sailetan.

Leku Eder, SL enpresak auzi bat baino gehiago jarria zuen Azpeitiko Udalaren kontra, hirigintza aferak tarteko, eta Loiolako etorbidea inguratzen duten eremuekin lotuta. Auzi horiek erretiratu egin ditu enpresak hitzarmena negoziatzen hasi aurretik.

**“Akordioari esker, legez dagoen eraikitakoaren %15az gain, Udalak Esklabak eraikina eta 2,5 milioi euro jasoko ditu lur-sailetan ”**

“Udalarentzat hitzarmena oso ona da. Urteak arazo arazo gainean kudeatzen pasatu du Udalak, arazoei irtenbidea bilatu beharrean arazo berriak sortuaz. Planak urteetan sortutako arazoak konpontzeko balioko du, eta herritarrei segurtasuna emango die.

Hala ere, egon litezkeen arazoak konpontzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnak diseinatu eta exekutatzeko konpromisoa hartzen du Udalak”, amaitu du Etxeberriak.

## AURREKARIAK

Plan Orokorrak urteetako gatazka eragin du herrian eta Udalean. Udala epaitegietan bere etorkizuna kinka larrian jarrita ibili da, eta, aldi berean, herriaren paralizazio handia eragin du


tresna estrategiko hau onartu gabe egotea. Udalak baliabide ikaragarriak jarri beharra izan du gai honetan, eta sortutako tentsioak eremu guztietan izan du eragina.

Planarekin Azpeitiko herria beste norabide batean jartzen da, eta urteetako konfliktoak gaintzen dira.

## EPAITEGIAK

**Auzitegi Gorenak 2007ko arauak erabat desegokiak direla erabaki du, nahiz oraindik boletinean ez argitaratu. Ondorioz, orain arteko tresna urbanistikoak baliorik gabekoak direlako Udala plan berriarekin sortutako arazoei irtenbidea ematen die.**

**“2007ko plana atzera bota du Auzitegi Gorenak ”**



## KONPROMISOA

Udalak konpromisoa hartu duela adierazi du Alkateak: sortutako arazo judizialen aurrean beharrezkoak diren tresna

urbanistikoak diseinatu eta onartzeko, herritarrek behar duten babesa juridikoak izan dezaten.

## PARTE HARTZEA

Plan urbanistikoa onartzeak hainbat herritarren parte hartzea eskatzen du, horregatik Udal gobernuak bereziki herritarren iritziak eta aportazioak bilatzeko mekanismoak martxan jarriko ditu.

- Plana interneten dago, [azpeitia.net](http://azpeitia.net)
- Udal azpian buzoia
- Iragarkiak egunkari guztietan
- Idazkaritzan informazioa
- Hirigintzan azalpenak

**Baina, gogorazi nahi die herritar guztiei IRAILAK 21 arte alegazioak aurkezteko tartea dagoela. Epea legeak ezarritako baino handiago da, ahalik ekarpen gehiago jasotzeko.**



1.-

**1.- BETHARRAM**  
Erakusketa gelaren egokitzapena  
Aurrekontua: 18.000 €



2.-

**2.- SANTUTXO**  
Parke estalitik auzora, igogailua.  
**Oharra:** Irailetik aurrera izango da martxan.  
Aurrekontua: 30.000 €




3.-

**3.- LOIOLA**  
Lorategian egokitzapenak eta panel informatiboak ezartzea.  
Aurrekontua: 6.200 €



4.-

**4.- LOIOLABIDE**  
Loiolako Ignazio etorbidean zebra-bide altxatua egin eta ikuspena hobetu  
Aurrekontua: 7.650 €



5.-

**5.- NUARBE**  
Pilotalekua egin  
Aurrekontua: 400.000 €




6.-

**6.- SOREASU**  
Espaloi-arrapala egin, aparkalekuak berritu eta txukundu eta oinezkoentzat bidea egokitu.  
Aurrekontua: 170.000 €



7.-

**7.- SANAGUSTIN**  
Larrialdietarako atea berria egin, kulturguneko edukiera handitzeko.  
Aurrekontua: 20.000 €



8.-

**8.- KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA**  
Irisgarritasuna hobetzeko, arrapala ezartzea  
Aurrekontua: 126.000 €



## Urtebeteko hitzarmena Uztarriarekin

**a**zpeitiko Udalak eta Uztarria Komunikazio Taldeak urtebeterako hitzarmena sinatu dute. Eneko Etxeberria alkateak eta Alaitz Olaizola Uztarriako lehendakariak sinatutako akordioaren arabera, 31.583,26 euroko diru-laguntza jasoko du Uztarriak aurten. Horrela, Azpeitiko Udalak, euskara eta euskal kulturaren aldeko apustu "serioa eta estrategikoa egiten du, herriko euskal kulturaren sustatzaile nagusienetakoa den heinean".

## Uren tratamendua ezagutuz



**i**bai Eder urtegia, Ibai Eder Edateko Uren Araztegia eta Badiologiko Hondakin Uren Araztegia bisitatu zituzten ekainaren 1 In Urola bailarako hainbat Udal ordezkariak. Gipuzkoako Ur Kontsortzioko teknikari eta ordezkarien eskutik egindako bisitari esker, alkate eta zinegotziek instalakuntza guztien funtzionamendua gertutik ezagutzeaz gain, urak izaten duen tratamendua ikasteko aukera izan zuten.

## Lapatx herritarrei irekita



**u**dal Gobernuak Lapatx zabortejiaren ate-irekiak antolatu zituen ekainean, hondakinen inguruan egindako batzarretan herritarrek egindako eskaerei erantzunez. 40 herritar baino gehiago animatu ziren eta ekimenarekin hasteko, Juan Karlos Alduntzin diputatuak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako Imanol Azpirozek Aldundiak aurkeztu duen hondakinen kudeaketarako planaren berri eman zuten. Ondoren, berriz, Lapatxeko garbigunea, konpost planta eta zabortegia bertatik bertara ikusteko aukera izan zen.



## Azpeitia, Hazparneko danborradan

**h**azparneko danborradak 20 urte bete ditu eta Azpeitiak bertan egon nahi izan zuen. San Joan jaietan egiten duten festan, azpeitiarrez osatutako 40 laguneko talde bat izan zen. Azpeitiarren taldea Basazabal, Arrantzaleak, Arauntza, Sanjuandegi eta Loiolabide zahar elkarteek osatu zuten. Lapurdiko herrian giro aparta izan zen eta, horregatik, Azpeitiko eta Hazparneko jai bat-zordeek eskerrik beroenak eman nahi dizkie partaide guztiei.

## Udalaren laguntza eskertuz



**m**aite Aizpuru, Juan Mari Etxeberria eta Iñaki Lizaso, Behar Bidasoa Gobernu Kanpoko Erakundeko ordezkariak Azpeitiko Udalean izan ziren ekainean Azpeitiko Udalak emandako laguntza eskertzeko. Erakundeak Rwandan duen proiektua babesten du Udalak eta eskertza bezala, Behar Bidasoak ebanozko oroigarria eman zioten Eneko Etxeberria alkateari. Udalaren laguntza etxebizitzak eraikitzen bideratzen dute; orain arte 24 egin dituzte, eta beste zortzi eraikiko dituzte aurten.

## San Joan su jendetsua



**S**u, musika, antzerki eta dantza artean eman zioten azpeitiarrek ongietorria udarari. San Joan suaren ekitaldi berezia prestatu zuten aurten Juan de Antxieta musika eskolak, musika bandak, Julian Barrenetxea abesbatzak, Lakrikun Antzerki Taldeko Alaitz Olaizolak, Aritz Garmendia bertsolariak, Itsasi Dantza Eskolak eta Areto Dantza taldeak eta hemiko plaza jendez betetzea lortu zuten. Azpeitiarrek ekimenaz gozatu ahal izan zuten. den heinean".

## Kalitatezko Agenda 21



**a**zpeitiko Tokiko Agenda 21aren kalitatea aitortu du Eusko Jaurlaritzak. Tak21 sariketako ebaluazio sistema, on-line bidezko aplikazio bidez egiten da, Udalek beraiek betetzen dute modu bizkor eta errazean, eta 100 adierazle baino gehiago hartzen ditu kontutan. "Sistema aitzindaria da, gaur eguneko errealitatera egokituta eta bere helburua, Agenda 21en kalitate globala hobetzea da. Politika publikoaren jasangarritasuna ebaluatzeko sistema da beraz", agertu dute arduradunek.



## Ikastetxeak bat, Urola garbitzeko

**a**zpeitiko Udalak, Urola, Ikasberri eta Iraurgi ikastetxeek eta Baigera Erretiratuen elkarteak bat egin zuten Urola ibaia garbitzeko. Ia 200 ikasle eta erretiratutako ekainaren 21eko goiza igaro zuten ibaia garbitzen eta bi kontainer bete zituzten jasotako zaborrekin. Azpeitiko Udalak eskerrak eta zorionak eman nahi dizkie parte hartu zuten guztiei, eta aurrerantz, gehiago antolatuko direla aurreikusten du.



### 'Azpeitia Pintxo Tour'

Inguruko jomuga turistiko garrantzitsuenak Loiolako Santutegia, Burdinbidearen Euskal Museoa, Zestoako Bainuetxea, Ekainberri eta eskualdeko hotel, nekazal turismo eta aterpetxeak dira eta jomuga hauetatik, ahalik eta bisitari gehien erakartzeko asmoz, Iraurgi Lantzenek eta Azpeitiko hainbat tabernek (Etxe Zuri, Zuhatz, Eguzkitza, Oñatz, Iraurgi, Ametsa, Juantxo Txiki eta Pastorkua) bat egin dute, 'Azpeitia Pintxo Tour' ekimena sortuz.

Modu honetan, herriguneko mapa batean, ekimen honetara atxikitu diren tabernak kokatu dira eta taberna hauek eta beraien eskaintza gastronomikoa ardatz hartuta, herrian zeharreko ibilbide bat proposatzen da, Azpeitiko gastronomiaren alderdietako bat, pintxoak, balore turistikoan ipiniz. Horretarako, eskuorri bat argitaratu da, euskara, gaztelera, ingelera eta frantses bertsiotan.

## Azpeitia deskubritu eta ezagutu

Iraurgi Lantzen Garapen Agentziak turismoarekin lotutako hainbat ekimen jarri ditu abian uda honetarako

**b**ada gure herrian zer ikusia. Horren adierazle nagusia da Azpeitira iristen diren atzerritarren kopurua. Bisitarien garrantziaz oharturik, Iraurgi Lantzen Garapenerako Agentziak hainbat ekimen jarri ditu abian uda honetan, kanpotik zein gertutik iristen direnei ahalik eta eskaintza zabalena emateko asmoz.

### "Bisita gidatuak, Pintxo Tour eta 5 geltoki historian antolatu dira"

Honela, Euskal Herriko altxorra den Bakardadeko Kaperan ikusteko bisita gidatuak egingo dira abuztuan, 'Azpeitia Pintxo Tour' ekimena tabernariekin batera hasi da martxan eta azken urteertako ohiturari jarraituz, '5 geltoki historian' proiektuari esker, eskualdeko gune garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izango da.




#### Bisita gidatuak

Sebastian Donearen Eliza nagusian eta bertako elementuetan zentratuko da bisita, batik bat guztiz berezia eta Euskal Herrian bakarra den Bakardadeko Kaperan. Kanpotarrei zein bertakoei zuzendutako bisita hauetan, "elizako ondarea eta ondare honekin loturiko pertsonaien arteko lotura sortuko da, eta hauen bidez ondarea azaltzeaz gain Azpeitiko historiaren zati bat ere azalduko da modu atsegin batean".

#### Egutegia:

- Abuztuak 4, larunbata, 12:00etan, Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 11, larunbata, 12:00etan, Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 18, larunbata, 12:00etan Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 25, larunbata, 12:00etan Azpeitiko eliza atarian.

Lau bisitak doakoak izango dira.



### 'Bost geltoki historian'

Azpeititik bailarara salto eginez gero, '5 geltoki historian' aurkitzen dugu. Eskaintza honen bidez, 20 kilometroren barruan kokatzen diren lau gune berezi bisitatzeko bitartean, publikoari bidaia bat egiteko aukera eman nahi zaio zentzu bikoitz batean; bidaia geografikoa alde batetik Urola bailara zeharkatuz, eta bidaia historikoa bestetik, historiako zenbait aro, pertsonai edo momentu klabe interpretatuz eta lehen eskutik ezagutzuz.

Ekimenak urte batzuetako ibilbidea badu ere, aurten osagarri gastronomikoa eman nahi izan zaio, "jateko eta edateko biltzea euskaldunen izaeran sartuta dagoen fenomeno bat delako". Hala, geltoki berri bat sortu da, bailarako lau tabernek osatzen dutena; Zumaia Kresala taberna, Zestoako Fati taberna, Azpeitiko Oñatz taberna, eta Azkoitiko Bai Azkoitia Batzokia taberna. Bostgarren geltokian, hau da, ekimenean parte hartzen duten taberna horietan, indarrak hartzeko aukera izango da, "pintxo pote" modalidadeko eskaintzaz baliatuz zintzurra busti eta sabela betetzeko.

#### Egutegia:

- Abuztuak 4, larunbata, 12:00etan, Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 11, larunbata, 12:00etan, Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 18, larunbata, 12:00etan Azpeitiko eliza atarian.
- Abuztuak 25, larunbata, 12:00etan Azpeitiko eliza atarian.

Lau bisitak doakoak izango dira.

#### Produktuaren ezaugarri eta edukia:

#### Forfaitaren prezioa:

8,5 euro (lau museoen sarrera prezioen baturaren %50).

#### Zer eskuratu daiteke forfait honekin:

Museo bakoitzera sarrera. Taberna bakoitzean pintxo bat eta edari bat hartzeko eskubidea 1,50 euroren truke (pintxo pote modalidadea).

#### 5 Geltoki Historian 2012ren osagaiak:

Algorri Naturaren Ezagutza Etxea (Zumaia)

Ekainberri (Zesto)

Burdinbidearen Euskal Museoa (Azpeitia).

Loiolako Santutegia (Azpeitia).

Geltoki gastronomikoa:

Kresala taberna (Zumaia), Fati taberna (Zesto), Oñatz taberna (Azpeitia), Bai Azkoitia Batzokia taberna (Azkoitia).

# Emakumeenganako indarkeriaren biktimei arreta hobe emateko protokoloa onartu du Udalak.

Azpeitiko Udala aitzindarietako bat da horrelako protokolo zehatz eta zabala sinatzen.



Hauek dira protokoloa sinatu duten erakundeak:

- Udalaren aldetik: Gizarte zerbitzuen Saila, Udaltzaingoa eta Parekidetasun Saila
- Ertzaintza
- Anbulatorioa
- Lanbide
- Foru Larrialdietako zerbitzuak
- Iraurgi ikastetxea
- Ikasberri ikastola
- Karmelo Etxegarai ikastola
- Urola ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI.

